

Arkaitz Lopez Jauregui-k bere tesia irakurri du

2015/03/30

Martxoaren 25ean, goizeko 11:00etan Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Arkaitz Lopez Jauregui Doktoregaiak bere doktoretesia aurkeztu zuen Polo Garaiako Auditorioan. Tesiaren izenburua *Predicción de vida a fatiga de uniones soldadas considerando el valor de las tensiones residuales* eta tesi zuzendariak: Jon Ander Esnaola eta Ibai Ulacia. Gainera Bikain Cum Laude kalifikazioa lortu zuen.

Epaimahaia horrela osatu zen:

- Mahaiburua: José Pedro Verón Guembe (Universidad de Cantabria) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Javier Belzunce Varela (Universidad de Oviedo) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Eugenio Giner Maravilla (Universidad Politécnica de Valencia) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Idoia Urrutibeascoa Irala (Mondragon Unibertsitatea) Dk. And.
- Idazkaria: Lander Galdos Errasti (Mondragon Unibertsitatea) Dk. Jn.

Soldadura da fabrikazio arloko prozesurik garrantzitsuenetako bat. Lotura hauetan, nekearengatik sortutako hausturak maiz ematen dira. Nekearekiko bizitzaren iragarpenerako dauden metodoak oso kontserbakorrak dira hondar tentsioen (HT) eragina mesprezatzen baitute. Tesi honetan, HT balioak soldadura prozesua simulatu ostean lortu dira eta hauen eragina kontsideratuz, nekearekiko bizitza zehazki iragartzeko prozedura bat garatu da.

